

Behin betiko erabakia, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordearena ONCE Fundazioaren - CRUEren praktika-beken programaren X deialdian (2025-2026)

UPV/EHUko Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako errektoreordearen urriaren 30eko Erabakiaren bidez, ONCE Fundazioaren-CRUEren praktiketarako beka programaren deialdia argitaratu zen, 2025-2026 ikasturtean desgaitasuna duten ikasleek enpresetan praktika ordainduak egin ditzaten.

Desgaitasuna duten ikasleek kanpoko praktika akademikoak egiteko aukera ematea da deialdiaren helburua, haien enplegarritasuna eta etorkizun profesionala hobetu dadin bultzatzeko. Praktiketarako 4 plaza eskaini zaizkie UPV/EHU gradu nahiz graduondoko titulazioren batean edo master ofizialen batean matrikulatuta dauden eta lege %33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortua duten ikasleei (UPV/EHU Hezkuntza Premia Bereziak dituzten Ikasleei Aukera Berdintasuna Bermatzeko Arautegiaren 3. artikuluan jasotakoari jarraiki). Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatu da programa, FSE+ 2021-2027 Inklusio Programaren esparruan.

UPV/EHUko Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordearen 2025eko abenduaren 17ko Erabakiaren bitartez, desgaitasuna duten ikasleei zuzendutako ONCE Fundazioaren-CRUEren praktiketarako beka programaren deialdian onartu eta baztertutako ikasleen behin-behineko zerrenda argitaratu zen. UPV/EHUko Ebaluazio Batzordeak proposatuta, eta aurkeztutako dokumentazioan identifikatutako akatsak zuzentzeko epea bukatu ondoren, honako hau erabaki da:

ERABAKIA

1. ONCE Fundazioaren-CRUEren praktiketarako beka programan onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzea bazter uzteko arrazoiak barne (l. Eranskina).

2. Erabaki hau eta bere eranskina argitaratzea UPV/EHUK hartarako sortutako webgunean (<https://www.ehu.eus/eu/web/discapacidad/once-crue-beken-deialdia>), bertan jasota ONCE Fundazioaren-CRUEren praktiketarako beka programan onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrenda.

3. Onartutako eta baztertutakoen zerrenda onartzen duen erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta haren aurka berraztertze errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak zehaztutakoaren arabera.

Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke bi hilabeteren epean, erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita. Berraztertze errekurtsua aurkezten bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri, lehenengoaren ustezko edo berariazko ebazpena izan arte.

Leioan, sinadura elektronikoaren datan

Asier Blas Mendoza

Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako errektoreordea
Vicerrector de Estudiantes y Compromiso Social

1. ERANSKINA

- Bekarako onartutako ikasleak:

NAN zk.:
72603322G
44723797K
30623496P
79007116T

- Erreserban onartutako ikasleak, puntuazio ordenaren arabera:

NAN zk.:
79172118T
22767230J
44638057W
78914712X

- Baztertutako ikasleak:

NAN	Arrazoia
73265680P	Eranskin I falta da
44567963N	Eranskin I falta da
72502114L	Eranskin I falta da
44567963N	Dokumentazio falta